



Ikastolakideok

Ikastolen Elkarteko artezkaritza kontseiluak bat egin du “Gure haurrak ere badira” ekimenarekin, atxikimendua emanaz <https://t.ly/gurehaurrak>

Ekimen honetako partaideek atzo, ekainaren 16an, egindako prentsaurrekoaz gain ekainaren 20an ekimen bateratu baterako proposamena egin digute.

Hona hemen ekimenaren mezua:

Aupa Lagunok!

Dakizuen ez urtearen hasieran Palestinan gertatzen ari denak hunkituta, hango haurrak eta nerabeak pairatzen ari diren sarraskiak barrenak inarrosita eta, oro har, ematen ari den genozidio honen aurrean suminduta, Bilboko hainbat ikastetxetako guraso elkarteek proposamenaz, testu baten inguruan bildu ginen. Gure begiek isurtzen dituzten amorruzko malkoak genozidio hau geldiarazteko indar bilakatzea zen asmoa.

Palestinako haurrak gure seme-alabak ere badirela aldarrikatu eta lau haizeetara zabaldu nahi genuen. Herri bezala aldarrikapen hori egin ahal izateko, subjektu legitimo bezala Euskal Herriko gurasoak barnebiltzen duten hezkuntza komunitatera jo genuen. Zuengana hain zuzen ere.

“Gure haurrak ere badira” manifestuari atxikimenduak biltzen hasi ginen, <https://t.ly/gurehaurrak> estekaren bidez.


Gaur, pozik esan ahal dizuegu dagoeneko 150 atxikimendu lortu ditugula. Babesak Euskal Herri osotik heltzen ari direla.

Gauzak aurrera, eta atxikimendu gehiago egunero biltzen ditugun eta heltzen diren

bitartean, Palestinako haurrak **“Gure haurrak ere badira” aldarrikapena lau haizetara zabaltzeko ordua heldu zaigu**. Horretarako hurrengo hitzorduaren berri eman eta indar osoz parte hartzeko deia egin nahi dizuegu.

EKAINAREN 20ko ASTEAN EKIMEN BATERATUA: Eskola guztietan argazkiak.

- **Ekainaren 20a**, kurtsoaren amaieraren data bezala hartuta. Eskola bakoitzak hautatuko du zein den helburua betetzeko egun egokiena, baina eskola gehienetan 20an izatea hobesten dugu, egun horretan bote komunikatibo bat eduki ahal izateko. Data horren bueltan izaten diren eskoletako jaiak aprobetxa daitezke ere bai.
- Ekimena bateratuaren **ezaugarriak**:
 - Ikastetxeetako patioetan komunitate osoaren argazkia (eskoletako patioak erabiltzeko arazoak izatekotan ateetan).
 - Argazki guztietako euskarri amankomuna inizatibaren irudia den aukia eta zapatak izango dira. Bi aukera izan daitezke:



1

Jendearen aurrean aulki bakar bat zapata pare batekin gainean. Argazkiak ateratzeko orduan aulkia lehenengo planoan eta atzean komunitate osoa ahalik eta jendetsuena.

Bandera palestinarrak jendearen artean banatu, fotokopiatuak edo aldez aurretik umeek egindakoak.



2

Parte hartzen dutenek aulkiak (zapata pare batekin zintzilik edo gabe) altxatzea.

Bandera palestinarrak jendearen artean banatu, fotokopiatuak edo

aldez aurretik umeez egindakoak.

Aulki hutsa dagoeneko eskolara joan ezin duten ume palestinarren sinboloa da. Israelek erail dituenak eta sarraskiagatik eskolara joaterik ez dutenak. Aulkiak altxatzen ditugun gurasoek gure haurrak falta zaizkigula diogu eta altxatzen dituzten ikasleek haien klase kideak falta zaizkiela diote.

○ **Argazkiak bidali:**

- Argazkiak gurehaurrak@gmail.com helbidera bidaliko ditugu. Bertan bilduko ditugu.
- Ekainaren 20an bertan prentsara bidaliko ditugu, berria ilustratu dezaten.

Beste aldetik zentro denei dei bat egiten diegu:

1- ESKOLA zein IKASTOLETAKO JAIETAN KEINUA: Izan Ekainaren 20an edo beste egun batean, zentro guztietan izaten diren kurtso amaierako jaiak aprobetxatuko ditugu. ▪

Jaiaren une batean manifestua irakurtzeko.

- Patio edo eskolako leku esanguratsuren batean aulki huts bat bi zapatakin eta palestinar bandera jarriko ditugu.

Biziki eskatzen dizuegu animatu eta ekainaren 20ko ekimen unitarioan parte hartzeko. Palestinako herriarentzat eta haurrentzat babes garrantzitsu berria bat izan dadila.

Gure haurrak ere badira!

EHIko artezkaritza kontseiluaren izenean ekimenarekin bat egin dezazuen proposatzen dizuegu. Gure haurrak ere badirelako.

Artezkaritza Kontseilua